

Hernike Knörr: giza irudia

ANDRES URRUTIA*

**RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT**

Como se puede observar en el título de este breve trabajo, el autor resalta el aspecto humano de Henrike Knörr, amigo y compañero suyo en Euskaltzaindia: su talante sociable y la forma especial de llevar a cabo sus investigaciones.

Lantxo honen izenburuak iragartzen duen bezala, egileak Henrike Knörr lagun eta euskaltzainkidearen giza baloreak aipatzen ditu. Haren izaera abegikorra eta ikerketak egiteko zuen modu berezia.

As it can be inferred by the title of the present brief article, its autor describes H. Knörr's as frien and co-worker in Euskaltzaindia, his friendliness and his particular manner to conduct research.

**PALABRAS CLAVE
GAKO HITZAK
KEY WORDS**

Henrike Knörr, Real Academia de la Lengua Vasca, vascuence, País Vasco, Aramaiona, cuadernillo.

Gako-Hitzak: Henrike Knörr, Euskaltzaindia, euskera, Euskal Herria, Aramaio, Kahier.

Key Words: Henrike Knörr, Royal Academy of the Basque Language, Basque language, Basque Country, Aramaiona, note-book.

*Euskaltzainburua

A skoren esana da denboraren joanak minak gutxiagotzen dituela. Halaxe omen. Horrexegatik, unean-unean heriotzaren zartada mingotsak bere ezpata erakusten duenean, ez ikusiarena egiten diogu maiz-sarri.

Batez ere lagun mina denean horren begipean. Hasieran sinesgaitz iruditzen zaiguna, gero, bat-batean, ezinbesteko bihurtu eta eramangarri egin behar.

Tankera horretan bizi behar izan dut Henrike Knörr euskaltzainkidea zendu izana. Euskaltzaindiak hurreratu eta batu gintuen. Harako gogo bera geneukan euskararen nondik norakoak ezagutzeko; eta, ororen gainetik, herria eta hizkuntza genituen hizpide, eta, zergatik ez, irizkide ere.

Batzen gintuen ideien erresuma horretan, argi zegoen euskara eta euskal cultura letra larrietan ikusten genituela, beste cultura eta hizkuntzen pareko, inolako lotsarik eta konplexurik gabe.

Batzen gintuen, orobat, gure hizkuntzaren literaturak. Aldiak aldi, elkarrekin partekatzen genituen euskal klasikoen testuek sortutako zirrara eta gozamena, miresmena eta irakurketa bera gutxietsi gabe.

Bagenuen, hala ere, euskal literaturan halako txoko erkidea, Albretar errege nafarrak sortua eta etengabe elikatzen zuena, zer non agertu elkarririk baikenion luze eta zabal. Hark erakutsi zidan behin Nerac herrirako bidea, han egon baitzen Albretarren gortea. Hark ere, pausoak pauso, onbideratu ninduan Lescar-eko elizara, Joana erregina kalbindar eta euskaltzalearen hilarriaren peskizan.

Teoriak, hala ere, huts eta kamuts, praktikarik ez badago. Nolanahi ere, partaide eta bidelagun nuen Henrike Euskaltzaindiaren lanean, batik bat, JAGON sailaren ahalegin eta neke-lorretan.

Hasierako hark ekarri zuen, bizitzaren soka luzean gertatzen den bezalaxe, Euskaltzaindiaren zuzendaritzakide ere izatea, erakundearen gobernurako berez zuen sena erakutsi zidana.

Praktikak eragina dauka, eta, eraginaren eraginez, ezin konta ahalekoak Henrikeren eginak eta eraginak. Euskaltzaindia, unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Antxo jakituna, Landazuri, ikastolak ... Luze joango litzateke horiek guztiak zerrendatzea. Ziur nago, bestalde, aipatu gabe utziko nituzkeela hainbat eta hainbat.

Bazen, alabaina, kutunen artean berak landu eta garatu zuena, eroa-pen eta maitasunez. Aramaioko jardunak dira horiek, aurten sortzailearen hutsunea izan dutenak, baina, galbidean baino, berpizte moduan jarririk beharko litzatekeenak. Bi aldiz hartu nuen parte; bi aldiz joan nintzen hara. Bibiotan izan nuen aukera, hango giro atsegin eta jakintsuan murgiltzeko.

Jaseko gizona, zalduna, kortesa eta jakintsua; atsegina zen berarekin mintzatzea eta solastatzea, gaiak eta kontuak interesgarri bezain umoretsu izaten zituelako. Maiz-sarri, halako bilera neketsuetan gailurra jo eta desesperantzaren porean kokatuta geundenean, Henrikeren baikor-

tasuna agertzen zen beti, gure kezka eta arranguren argigarri, mundua mundo deino arazoek konponbidea dutela adierazteko.

Bazen, alabina, Henrikeren barruko horretan kontu polit eta ohargarria. Adiskideak adiskide, Henrikek ez zuen aukerarik galtzen, inguruan zituen guztien esamolde, hitz, pasadizo, gertaera eta gertalixkiak jasotzeko. Nahiz Bizkaian, nahiz Zuberoan edota Araban, hitz batez esateko, Euskal Herria osoan, Henrikek, entzun ahala, berehalakoan idazten zituen horiek, kaier txiki batzuetan, gerora ere, bere lanetan erabiltzeko asmoarekin.

Hor zuen Henrikek egundoko iturria euskarari dagozkion kontuetan; hor ere gure solasak, anitzetan errepikatu behar izaten genituenak, berak zehatz-mehatz paperean islatu arte une bat lehenago ahozko gozo eta irri sortzaile edota esamolde jatorra zena.

Haiek ziren Henrikeren kaierak. Kaier baliotsuak, aberatsak: gure historia, antropologia, linguistika, literatura zatiak, bertsoak... Hitz gutxitan esateko, euskal kulturaren zati esanguratsuak hartzen zituztenak, zer non egoki zertuta. Horiek ere, noizbait, ezagutzeko parada izango beharko genituzke, berezko Henrike hori ezagutzeko.

Haren lanen zerrenda letra larriz eta azpimarratuta ikusten dugu, jakituria eta lan handiko persona bati dagokion moduan. Nik, hala ere, bestelakoak hobetsi nahiko nituzke oraingoan, hain justu ere, Henrikeren kaier txiki horiek, horietan baitago, seguru asko, Henrikeren izaterik barru-barrukoenak, kutunenak. Azalez arineketan zirriborratuak badira ere, mamiz, zoli eta aberatsak izango direlakoan nago, Henrike beraren izaera eta zehaztasuna ikusita.

Hortaz, Henrikeren kaierak ditut gogoan; horien bidez Henrike bera ere, euskararen inguruko miaketa nekaezinean murgilduta, orriz orri, liburuz liburu, irribarrea ezpainetan eta gizalege prestua bihotzean.

Hura zen Henrike. Halakoxeak Henrikeren kaierak.